




28. alea
2004 - Apirila

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN



1. zikloa

IPUINAK

- Konturatuko zinenez bi pertsona hauek betaurrekoak dituzte. Margotu ezazu pertsona horrekin egokia deritzozun adjetiboa.
- Como te habrás dado cuenta estas dos personas tienen gafas. Pinta el adjetivo con el que relacionarías a cada persona.



jakituna

tuntuna

interesgarria



tuntuna

jakituna

interesgarria

Gaxi eta printzesa

Egunero bezala Gaxi erreka bazterrera hurbildu zen, egun horretan ordea, triste zegoen oso eta bere negar malkoek erreka lamia esnatu zuten. Gaxi hasiera batean beldurtu egin zen baina las-ter lasaitu zen lamiaren ahots goxoa entzun bezain pronto:

- Zer duk Gaxi? Zergatik hago horren triste?

Gaxik orduan bere anaiak eta ama ezteietara joango zirela azaldu zion lamiari eta nola bera etxean gelditu beharko zen. Orduan lamiak ez kezkatzeko esan zion eta ezteietara joango zela adierazi zion, behar zen guztiarekin.

Hurrengo egunean, ama eta bi anaiak ezteietara joan ziren. Gaxi ere joan zen lamiak esan bezala.

Jaian Gaxik dantza egin zuen erreginarenekin. Oso gustora zeuden, baina denbora kon-turatu gabe pasa zen. Ilundu zuenean, Gaxik presaka joan nahi zuen etxera eta korrika zihuala, zapata bat galdu zuen eskaileretan. Erreginarenekin alabak etxetik irtetekoan zapata aurkitu zuen eta zapata haren jabea aurkitu nahi zuela adierazi ere.

Beraz, hurrengo egunean herriko mutil guztiak plazan bildu ziren zapata probatzera eta inori ez zetorkion ondo. Gaxiren anaia asko saiatu ondoren, behatz guztiak minduta zapata janztea lortu zuen. Berea zela pentsatu zuen jendeak eta Gaxiren anaia erreginarenekin etxera joan zen gura-ssak ezagutzera. Erreginarenekin alabari ezteietan ikusi zuen mutilaren aldean itsusia iruditu zitzaion oraingo hau, baina tira. Arnasa hartzera, bere burua lasaitzera, lorategira hurbildu zene-an, txori bat jarri zitzaion pió-pioka Gaxiren anaiak zapata ez zuela ondo esanez. Hori entzute-an erreginarenekin alabak Gaxiren anaiari beste anairen bat ote zuen galdetu zion eta horrela zela jakitean Gaxiri zapata probatu nahi ziola azaldu zion.

Beraz, hau guztia argitzeko Gaxiren etxera abiatu ziren eta etxean sartu, Gaxiri zapata pro-batu eta ederki zeukala ikusi zuen. Gainera erreginarenekin alabak berehala ezagutu zuen Gaxi eta harekin ez bazen, ez zela inorekin joango esan zuen. Gaxik ere erreginarenekin alabarekin elkartu nahi zuen. Kontuak horrela eta erreginarenekin baiezkoarekin elkarrekin bizitzea lortu zuten.

1 Zer igarri diozu ipuin honi? Aldatuko al zenioke zerbait? Zergatik?

2 Nolakoak ziren zure gurasoen garaiko ipuinak? Galdetu eta kontatu klasean.

1 ¿Qué has notado en este cuento? ¿Cambiarías algo? ¿Por qué?

2 ¿Cómo eran los cuentos de cuando ama y aita eran como tu? Preguntales y comentalos en clase.

Lotu itzazu ipuinetan agertu ohi diren elementu hauek dagokien pertsonarekin. Hau da, elementu bakoitza zuk uste bezala erlazionatu behar duzu, neska edo mutilarekin

Une los elementos que a menudo suelen aparecer en los cuentos con una persona. Es decir, une cada elemento con el chico o chica según te parezca mejor.

otzara

liburua

koroia

erratza

makila magikoa

mugikorra

urrezko txanponak

ezpata

egunkaria

makila

lupa

iparrorratza

esku-argia

kapela

prismatikoak

NESKA

MUTILA

Gurasoekin batera egiteko

Ipuin, mito, aspaldiko narrazio eta baita gaur egungoek ere, kutsu sexista bat izan dezakete. Honetaz guztiaz ondorengo pertsonaia hauen deskribapenarekin ohar gaitzke. Hau guztia beraz, kontuan hartu eta ahal den neurrian ekidin behar dugu.

PROTAGONISTAK: Gehienetan gizonezkoak, printzipeak, kazetariak. super heroiak, bake-roak indioak, soldaduak, generalak...

EMAKUMEAREN PAPERA: Gehienetan bigarren mailan geratzen da, eta protagonistaren menpe: neskalgunak, amak, arrebak, esklabuak, laguntzaileak, emazteak, neskameak...

GIZON AKTIBOAK: Dinamikoak, ausartak... eginbehar bat izaten dute gehienetan,. Bere lanaren sari bezala askotan neska bat izaten du.

EMAKUME PASIBOAK: Etxe bat zaindu beharra eta askotan gizona itxaron beharra. Txukuna, garbia, ametslaria.

MUTIKOAK: Dinamikoak, aktiboak. Hauek neskak baino ausartagoak eta protagonismo haundiago izaten dute.

NESKAK: Pasibak, garbiak, txukunak, lasaiak, ametslariak, atseginak...

AMAK: Lan eta ikasketa gabeak. Afiziorik ez dutenak eta interes kulturalik ere ez dutenak. Beti etxeko lanak direla eta denborarik gabe, askotan ohean gaixorik, etxearen beharrerako bizi dira.

AITAK: Oso lanpetuak. etxeko girotik kanpo bizi dira. Egunkaria irakurri eta telebistaren jabe dira. Oso serioak eta erabakiak hartzeko gai dira.

GURE ESKU DAGO BESTELAKO EREDUAK ESKEINTZEA

Tanto en los cuentos como en las narraciones pueden encontrarse estereotipos sexistas. De estos nos podemos dar cuenta al leer las descripciones que ofrecemos de diferentes personajes que aparecen en ellos.

PROTAGONISTAS: La mayoría de las veces son hombres, príncipes, reporteros, super héroes...

EL PAPEL DE LA MUJER: La mayoría de las veces adoptan un segundo plano: novias, madres, hermanas...

HOMBRES ACTIVOS: Dinámicos, valientes... la mayoría de las veces tienen un cometido que cumplir. Su premio por el trabajo realizado a menudo suele ser una chica.

MUJERES PASIVAS: Que cuidan de su casa, en espera de su marido. Limpias, soñadoras...

NINOS: Dinámicos, activos. Son más valientes que las niñas y adquieren mayor protagonismo.

NIÑAS: Pasivas, limpias, tranquilas...

MADRES: sin estudios ni trabajo. Su afición es la casa. A menudo aparecen enfermas.

PADRES: Muy trabajadores. Viven fuera del ambiente familiar. Muy serios y capaces de tomar decisiones.

EN NUESTRAS MANOS ESTA OFERTAR OTROS MODELOS DIFERENTES

